



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

**2019KO URRIAREN 3KO OSOKO  
BILKURAREN ERABAKIAK**

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO  
EL DÍA 3 DE OCTUBRE DE 2019**

1. (deialdiko 2. puntua) Eztabaida eta behin betiko ebazpena, ea posible eta egoki den izapidetzen jarraitzea EH Bildu talde parlamentarioak egindako lege-proposamena, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzekoa, Ebazpen Batzordearen 1/2019 erabakia dela eta. [11\09\02\02\00022]

Lege-proposamena izapidetzen jarraitzea onetsi egin da.

1. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva sobre la posible y oportuna continuación de la tramitación de la proposición de ley, formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, para la creación de la oficina de buenas prácticas y anticorrupción, con motivo de la decisión de la Comisión Arbitral 1/2019. [11\09\02\02\00022]

Se aprueba la continuación de la tramitación de la proposición de ley.





**2. (deialdiko 4. puntua) Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, sare sozialetan zeharreko desberdintasun eta indarkeria matxistei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00467]**

EA-NV, EH Bildu, EP eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

90/2019

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Garatu dezala sensibiltzazio-lerro bat, II. Hezkidetza Planaren eta haren 3. helburuaren esparruan ("Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa, detekzio goiztiarra eta erantzun eraginkorra lortzeko mekanismoak martxan jartzea"), errealitate matxista digitalei buruz, barne harturik ziberjazarpen sexuala eta/edo sexista eta ziberkontrola, zeinak indarkeria matxisten eta LGTBQfobikoen beste adierazpen bat baitira, hezkidetzan oinarrituriko eskola-ereduan aurrera egiten jarraitzeko.
2. Jarrai dezala heltzen eta arreta jartzen informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) bidezko indarkeria modu berriei, bai eta ziberjazarpenaren prebentzioari ere, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleen formakuntza-jardueren bidez, irakasleen etengabeko formakuntzarako Prest\_Gara Planaren baitan, eta prestakuntzan eta hezkuntzaren berrikuntzan laguntzeko zentroen (berritzeguneen) bidez, bai eta Beldur-Barik programaren esparruan ere, aztertuz, orobat, nerabeekin batera Autodefentsa Feminista Digitala lantzeko aukera.
3. Sensibiltzazio-lana egin eta informazioa eman dezala, hezkuntzaren eta informatika-eta teknologia-sektore publiko eta pribatuen esparruetan, generoaren araberako bigarren eta hirugarren arrakala digitalei buruz, eta arrakala horiek prebenitzen eta desagerrarazten laguntzeko neurriak hartzeko beharri buruz.
4. Sustatu ditzala, hezkidetzan oinarritutako eskola-ereduaren baitan, informatikaren eta

**2. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a desigualdades y violencias machistas a través de redes sociales. [11\11\02\01\00467]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP y SV-ES.

90/2019

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Desarrollar una línea de sensibilización, en el marco del II Plan de Coeducación y su objetivo 3 ("Poner en marcha mecanismos para la prevención, detección precoz y respuesta eficaz ante la violencia contra las mujeres"), sobre las realidades machistas digitales, entre las que se encuentran el ciberacoso sexual y/o sexista y el cibercontrol, que son otra manifestación de las violencias machistas y LGTBQfóbicas, para continuar avanzando en el modelo de escuela coeducativa.
2. Seguir abordando y atendiendo a las nuevas formas de violencia mediante las tecnologías de la información y la comunicación (TIC), y a la prevención del ciberacoso a través de las actividades formativas para el profesorado no universitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dentro del Plan Prest\_Gara, de formación continua del profesorado, y de los centros de apoyo a la formación e innovación educativa (berritzegunes), así como en el marco del programa Beldur-Barik considerando la posibilidad de trabajar con adolescentes en la Autodefensa Feminista Digital.
3. Sensibilizar e informar, en los ámbitos de la educación, de los sectores informáticos y de la tecnología públicos y privados, sobre la existencia de la segunda y tercera brecha digital de género y la necesidad de tomar medidas para contribuir a prevenirlas y erradicarlas.
4. Incorporar en el modelo de escuela coeducativa la promoción del interés y el





teknologiaren sektoreen aldeko interesa eta hurbilpena nesken artean –haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan–, informatikaren eta teknologien arloetako emakumezko erreferenteak erraztuz, emakumeek sektore horietan duten zereginaren balioa nabarmentzeko kanpainak eginez, era horretan iraultzeko emakumeen eta gizonen berdintasun eza ikasketak eta lanbideak hautatzerakoan. Informatikaren eta teknologiaren sektoreak nabarmen maskulinizatuta daude oraindik.

5. Jarrai dezala eskuliburuak eta protokoloak egiten, ikastetxeek tresna egokiak izan ditzaten balioetan oinarritutako hezkuntza indartzeko eta prebentzio- eta jarduerestrategia eraginkorrak definitzeko indarkeria matxistei, ziberjazarpenari, babesik ezari, tratu txarrei eta haurren eta nerabeen sexu-abusuari aurre egiteko, adingabeen babesean parte hartzen duten gainerako eragileekin elkarlanean".

acercamiento de las niñas, adolescentes y jóvenes a sectores de la informática y de las tecnologías, facilitando referentes femeninos de los ámbitos de la informática y de la tecnología, a través de campañas que pongan en valor el papel de las mujeres en esos sectores, para revertir la desigualdad de mujeres y hombres en la elección de estudios y profesiones. Los sectores de la informática y la tecnología permanecen hasta la fecha fuertemente masculinizados.

5. Seguir desarrollando manuales y protocolos para dotar a los centros escolares de herramientas adecuadas para potenciar la educación en valores y la efectiva definición de estrategias preventivas y de actuación ante las violencias machistas, el ciberacoso, la desprotección, el maltrato y el abuso sexual infantil y adolescente, en coordinación con el resto de agentes que intervienen en la protección de las personas menores de edad".





**3. (deialdiko 6. puntua) Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, Euskadiko hondakin-urak saneatzeko proiektuen kofinantzaketaren gardentasunari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00576]**

EH Bildu eta EP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketaren bozketan berdinketa izanda, hurrengo osoko bilkuran erabakiko da.

**3. (punto 6 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la transparencia en la cofinanciación de los proyectos de saneamiento de aguas residuales en Euskadi. [11\11\02\01\00576]**

Producido empate en la votación de la enmienda transaccional suscrita por los grupos EH Bildu y EP, queda pendiente para una próxima sesión plenaria.





**4. (deialdiko 5. puntua) Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako legez besteko proposamena, ETA erakunde terroristako kideei harrera, goraipamena eta omenaldia egiteko ekitaldiak eragozteko neurriak hartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00614]**

EA-NV, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

91/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak baztertu egiten du espetxetik irtendako ETAko presoek handikeriaz aitortza-ekitaldiak egitea, eta horiek antolatu eta sustatzen dituztenei eskatzen die bertan behera utz ditzatela biktimekiko eta haien senideen minarekiko sensibilitateagatik, iraganaren memoria kritikoarekiko errespetuagatik, eta bizikidetzaren demokratikoa eraikitzeke zailtasun bat gehiago eta zatiketa-elementu bilatzea ekiditeagatik.
2. Eusko Legebiltzarrak eskumena duten botere publikoei berresten die beharrezkoa dela terrorismoaren eta giza eskubideen urraketek biktimei zor zaien aitortza-, egia-, justizia- eta erreparazio-politikak bermatzea, eta, horretarako, eskatzen die ezabatu ditzatela pairatutako bidegabekeriak zein eragin lekizkiekeenak, eta era berean, har ditzatela eurekiko irainak, umiliazioa eta berbiktimizazioa ekidindo dituzten neurriak.
3. Eusko Legebiltzarrak dei egiten die erakunde publikoei, alderdi politikoei eta gizarte-eragileei ahaleginak areagotu ditzaten euskal herritarren artean aktiboki susta dezaten deslegitimazioaren indarkeriaren erabilera proiektu politikoen inposaketa totalitariorako baliabide gisa, bai iraganean, bai orain, bai etorkizunean".

**4. (punto 5 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a la adopción de medidas para impedir los actos de recibimiento, enaltecimiento y homenaje a miembros de la organización terrorista ETA. [11\11\02\01\00614]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EP, SV-ES y PV-ETP.

91/2019

- "1. El Parlamento Vasco rechaza los actos de reconocimiento con ostentación pública a los presos de ETA que salen de prisión, e insta a quienes los organizan y promueven a que dejen de hacerlo por sensibilidad hacia las víctimas y al dolor de sus familias, por respeto a una memoria crítica del pasado y para evitar que se conviertan en un elemento de división y en una dificultad añadida para la construcción de una convivencia democrática.
2. El Parlamento Vasco reitera a los poderes públicos competentes la necesidad de garantizar las políticas de reconocimiento, verdad, justicia y reparación debidas a las víctimas del terrorismo y de vulneración de derechos humanos, eliminando los agravios sufridos y los que pudieran provocárseles, así como adoptando las medidas que eviten su ofensa, humillación y revictimización.
3. El Parlamento Vasco hace un llamamiento a las instituciones públicas, los partidos políticos y los agentes sociales a redoblar los esfuerzos para promover activamente entre la ciudadanía vasca la deslegitimación del uso de la violencia como recurso para la imposición totalitaria de proyectos políticos, tanto en el pasado como en el presente y en el futuro".





## 5. (berria) Adierazpen instituzionala, Kolonbiako giza eskubideen egoerari buruz. [11\11\05\00\00067]

Adierazpena onetsi da.

"Joan den uztailen, Eusko Legebiltzarreko ordezkari bat, Eusko Jaurlaritzarekin eta gizarte zibileko zenbait erakunderekin batera, Kolonbian izan zen bisitan, Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Aldi Baterako Babeserako Euskal Programan aurreikusitako Giza Eskubideak Behatzeko Misioaren baitan.

Kolonbiako egonaldian, euskal ordezkariak programapean dauden lau emakume defendatzailearen lurraldeak bisitatu ditu: Santander de Quilichao (Cauca), Resguardo Triunfo Cristal Páez (Valle del Cauca), Medellín (Antioquia) eta Buenaventura (Valle del Cauca). Era berean, hainbat elkarterekin, gizarte-mugimendurekin, defendatzaileak babesteko erakunderekin eta gobernuz kanpoko erakunderekin batu da, besteak beste: Proceso de Comunidades Negras (PCN), Asociación de Consejos Comunitarios del Norte del Cauca (ACONC), Organización Regional Indígena del Valle del Cauca (ORIVAC), Organización Nacional Indígena de Colombia (ONIC), Fundación Comité Solidaridad con los Presos Políticos (FCSP), Congreso de los Pueblos eta Comisión Intereclesial de Justicia y Paz.

Ordezkaritza, halaber, Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi Komisarioaren ordezkariaren ondokoarekin eta Kolonbiako erakundeekin – besteak beste, Fiskaltza, Unidad Nacional de Protección, Jurisdicción Especial para Paz, Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición– eta Errepublikako Kongresuko senatariekin batu zen, bai eta Antioquiako prokuradorezarekin, defentsabulegoarekin eta herrizaintzarekin ere, eta Espainiak Kolonbian duen enbaxadarekin.

Bileren, jasotako lekukotzen eta aztertutako dokumentazioaren ondoren, Eusko Legebiltzarrak honako hau adierazten du:

**LEHENA:** Bake Akordioak sinatu zirenetik bi urte baino gehiago igaro ondoren, egiaztatzen dugu indarkeria larriagotu egin dela eta giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoek, mehatxuek eta kriminalizazioak gora egin dutela, batik bat lider indigenen, afro-ondorengoen eta bakearen eta lurraldearen defentsan aktiboki eta nabarmen lan egiten dutenen artean.

## 5. (nuevo) Declaración institucional sobre la situación de los derechos humanos en Colombia. [11\11\05\00\00067]

Se aprueba la declaración.

"El pasado mes de julio, una delegación del Parlamento Vasco, junto con el Gobierno Vasco y entidades de la sociedad civil, visitó Colombia en el marco de la Misión de Observación de Derechos Humanos prevista en el Programa Vasco de Protección Temporal a Defensores y Defensoras de Derechos Humanos.

Durante su estancia en Colombia, la delegación vasca visitó los territorios de cuatro mujeres defensoras acogidas en el programa: Santander de Quilichao (Cauca), Resguardo Triunfo Cristal Páez (Valle del Cauca), Medellín (Antioquia) y Buenaventura (Valle del Cauca). Así mismo, se ha reunido con diferentes asociaciones, movimientos sociales, organizaciones de protección de personas defensoras y organizaciones no gubernamentales; entre ellas, el Proceso de Comunidades Negras (PCN), la Asociación de Consejos Comunitarios del Norte del Cauca (ACONC), la Organización Regional Indígena del Valle del Cauca (ORIVAC), la Organización Nacional Indígena de Colombia (ONIC), la Fundación Comité Solidaridad con los Presos Políticos (FCSP), el Congreso de los Pueblos y la Comisión Intereclesial de Justicia y Paz.

La delegación también se reunió con el representante adjunto del Alto Comisionado de DDHH de las Naciones Unidas y con instituciones colombianas, como la Fiscalía, la Unidad Nacional de Protección, la Jurisdicción Especial para Paz, la Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición, y con senadores del Congreso de la República, además de la Procuraduría, la Defensoría y la Gobernación de Antioquia, así como la Embajada de España en Colombia.

Tras las reuniones realizadas, los testimonios recibidos y la documentación previamente analizada, el Parlamento Vasco manifiesta que:

**PRIMERO:** Transcurridos más de dos años desde la firma de los Acuerdos de Paz, constatamos el agravamiento de la violencia y el incremento de las agresiones, amenazas y la criminalización contra las personas defensoras de derechos humanos, especialmente líderes indígenas, afrodescendientes y quienes trabajan activa y visiblemente en defensa de la paz y del territorio.





2018an 110 defendatzaile erail zituzten, gutxienez. NBERen datuen arabera, giza eskubideak defendatzeko munduko herrialde arriskutsuenetako bat da Kolonbia. 2019an, batezbesteko horrek txarrera egin du; izan ere, urtarilaren eta apirilaren artean 51 defendatzaile erail dituzte. (Iturria: PBI)

**BIGARRENA:** Arduratuta gaude pertsonen babesaren ginetik interes ekonomikoak lehenesten dituzten eta kontrolagatik liskarrean ari diren eragile armatuek okupatzen dituzten lurraldeetan bizi den egoeragatik. Taldeok sistematikoki urratzen dituzte emakumeen eta komunitate indigenen, nekazarien eta afro-ondorengo giza eskubideak. La Tomako Kontseilu Komunitarioaren (Suarez, Cauca) aurka lurraldea okupatzeko eginiko mehatxuen lekuko izan da ordezkari.

**HIRUGARRENA:** Egutero giza eskubideak modu baketsuan defendatzen dituzten pertsonen lan goraiagarria aitortzen eta bultzatzen dugu, bai eta, babes-neurri gisa, beren lurraldeak eta bizimoduak utzi beharrean daudenen lana ere. Era berean, bat egiten dugu bakearen alde egiten duten apustu zintzoarekin eta Bakerako Justizia Bereziak, Egiaren Batzordeak eta bake-akordioen aplikazio integralak eginiko lana bultzatzearekin.

**LAUGARRENA:** Balioesten ditugu Fiskaltzak adierazi dituen aurrerapenak, giza eskubideen defendatzaileen aurka eginiko edozein delitu jazartzeko ikerketa- eta sendotze-estrategia ezartzeari dagozkionak, eta eskerrak ematen dizkiogu Buenaventurako etenaldi zibikoaren ondoren hartutako akordioen segimendua egiteko hartu duen konpromisoagatik.

**BOSGARRENA:** Erakundeei eskatzen diegu ezar ditzatela prebentzio eta babes kolektiboko mekanismoak, eman dezatela ezagutzera defendatzaileen lana eta nabarmendu dezatela lan horren balioa, eta jar dezatela arreta berezia mehatxu gehien jasaten duten eremu eta kolektiboetan. Lortzeke dauden erronketako batzuk dira antzinako herriak aitortzea, hala nola herri indigenak eta herri Beltza, eta haien lurraldeak legeztatzea, bai eta landa-eremuetan erakundearen presentzia egotea ere, ez bakarrik segurtasunaren bidez, baita, nagusiki, gizarte-, ekonomia- eta kultura-garapenaren bidez ere, ikuspegi diferentzialarekin. Era berean, instituzio eta gizarte-erakundeak animatzen ditugu lana sendotzera, benetako bake- eta bizikidetzakultura sortzeko

Con al menos 110 personas defensoras asesinadas en 2018, según datos de la ONU, Colombia es uno de los países más peligrosos en el mundo para defender los derechos humanos. En 2019, este promedio ha empeorado aún más, ya que al menos 51 personas defensoras han sido asesinadas entre enero y abril. (Fuente: PBI)

**SEGUNDO:** Mostramos nuestra preocupación por la situación que se vive en los territorios donde intereses económicos se priorizan frente a la protección de las personas y que están siendo ocupados por actores armados que se disputan su control. Estos grupos violan sistemáticamente los derechos humanos de las mujeres y de las comunidades indígenas, campesinas y afrodescendientes. La delegación ha sido testigo de las amenazas dirigidas contra el Consejo Comunitario de La Toma (Suarez, Cauca) para ocupar su territorio.

**TERCERO:** Reconocemos y apoyamos la encomiable labor de las personas que cada día defienden de manera pacífica los derechos humanos, y de aquellas que se ven obligadas a abandonar sus territorios y modos de vida como medida de protección. Así mismo, compartimos su incondicional apuesta por la paz y el apoyo a la labor realizada por la Justicia Especial para la Paz, la Comisión de la Verdad y la aplicación integral de los Acuerdos de Paz.

**CUARTO:** Valoramos los avances señalados por la Fiscalía en la implantación de la estrategia de investigación y fortalecimiento para perseguir cualquier delito cometido contra personas defensoras de derechos humanos y agradecemos su compromiso de hacer seguimiento a los acuerdos adoptados tras el paro cívico de Buenaventura.

**QUINTO:** Instamos a las instituciones a implementar mecanismos de prevención y protección colectiva, a visibilizar y poner en valor el trabajo de las personas defensoras, y a prestar especial atención en las zonas y colectivos más amenazados. El reconocimiento de pueblos ancestrales, como los pueblos indígenas y el pueblo Negro, y la legalización de sus territorios son retos pendientes, así como la presencia institucional en las zonas rurales, no solo a través de la seguridad, sino también, y principalmente, mediante el desarrollo social, económico y cultural, con enfoque diferencial. Asimismo, animamos a las instituciones y organizaciones sociales a reforzar el trabajo para generar una auténtica cultura de paz y convivencia en todos los territorios.





lurralde guztietan.

**SEIGARRENA:** Eskerrak ematen ditugu defendatzaileen, haien komunitateen eta gainerako erakundeen, instituzioen eta nazioarteko erakundeen aldetik izandako harreragatik, eta konpromisoa hartzen dugu giza eskubideen defendatzaileen egoerarekin erne jarraitzeko eta haien lana segurtasun-baldintzen arabera bete dadin bermatzeko. Arreta berezia eskainiko diogu bake-prozesuan adostutakoa benetan eta modu eraginkor eta integralean ezartzeari.

**ZAZPIGARRENA:** Era berean, kezka adierazten dugu urriko udal- eta eskualde-hauteskundeen inguruan gertatzen ari diren indarkeria eta mehatxuengatik. Hauteskunde Behaketa Mugimenduaren arabera, 2018ko urriaren 27aren eta 2019ko abuztuaren 27aren artean, 364 buruzagi politiko, sozial eta komunalek indarkeria jasan dute, eta horietatik 91 erail egin dituzte hauteskunde-egutegia hasi zenetik. Hori dela eta, berriro adierazten diegu Kolonbiako agintariei Kolonbiako aukera politiko guztietako hautagaien eskubideak segurtatu eta errespetatu egin behar direla, hauteskundeak askatasunean egin daitezen".

**SEXTO:** Agradecemos la acogida recibida por las defensoras, sus comunidades y demás organizaciones, instituciones y organismos internacionales, y nos comprometemos a continuar atentas a la situación de las personas defensoras de los derechos humanos y a velar por que su labor se ejerza en condiciones de seguridad, prestando especial atención a la implementación real, efectiva e integral de lo acordado en el proceso de paz.

**SÉPTIMO:** Así mismo, mostramos nuestra preocupación por la violencia y amenazas que rodean el proceso de las elecciones municipales regionales de octubre. Según el MOE (Movimiento de Observación Electoral), entre el 27 de octubre de 2018 y el 27 de agosto de 2019 se han registrado hechos violentos contra 364 líderes políticos, sociales y comunales, y de esos, 91 han sido asesinados desde el inicio del calendario electoral. En ese sentido, insistimos a las autoridades colombianas en la necesaria seguridad y respeto a los derechos de las personas candidatas de todas las opciones políticas en Colombia para que puedan celebrarse unas elecciones en condiciones de libertad".

